



**TOLOSALDEKO  
ETA LEITZALDEKO**

# hitza



**Asteartea**  
**2009-03-02**

VII. URTEA 1.644. ZENBAKIA  
ESKUALDEKO EGUNKARIA

[WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO](http://WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO)



20 lagun inguruk hartu zuen parte Villabonako Kultur Etxean eginiko kafe tertulian. N. LATABURU

## SEXUALITATEA EMAKUMEAREN IKUSPUNTUTIK

**TOLOSALDEA** Emakumearen Nazioarteko Eguna dela eta, hainbat ekitaldi izango dira eskualdean; atzo, esaterako, sexuaz aritu ziren 4

## Ertzaintzaren esku, inkomunikaturik jarraitzen du Manex Castro billabonatarrak

**VILLABONA** Amnistiaren Aldeko Mugimenduak «gogor» salatu du gaztearen «inkomunikazio egoera, eta ertzainek izan duten jarrera» 5

## Bertsolar HITZA desafioa ostiralean hasiko da

**IBARRA** Alegia eta Ibarren artekoa izango da lehena, ostiralean, Ibarako Gaztetxean 7



Elordi pilotako delegatua. N. URBIZU

## Pilotan ikasteaz gain, gazteak biltzeko aproposa

**IKAZTEGIETA** 20 urte daramatza Ikaztegieta pilotako eskolak eskola ireki bezala lanean 5

**Emaitza onak lortu dituzte eskualdeko mahai tenis taldekoek**

**TOLOSALDEA** Usabal MT-Tolosa eta Olaederra TMK garaipenak eskuratu dituzte 3

**Tolosa hirugarren postuan dago berdinketa erdietsi ostean**

**TOLOSA** UPVren aurka 1-1 egin zuten tolosarrek; liderra bi puntura dute 3



Asvineak antolatutako Ahoz aho jaialdiko lehen ekitaldiak gauzatu dira ostiraletik aurrera: ipuin tailerra, antzerkiak, jaialdia... ASIER IMAZ

## Jorge Oteiza eskultorea izango dute gogoan hilabete honetan zehar

**Kultura** » Martxoan ere hainbat ekitaldi izango dira Tolosan; musika, antzerkia, pailazoak, bertsoa... izango dira protagonista.

### ERREDAKZIOA

Inauterietako burrunbaren ostein normaltasuna itzuli da Tolosara, eta hilabete berria hasi dugun honetan, aurreko hilabeteko jaiek atzean utzita, datozen egunetarako ere hainbat ekitaldi antolatu dituzte kultur eragile ezberdinek.

Hil honetan Oteiza eskultorea izango dute gogoan, eta oroitzeko hainbat ekintza egingo dituzte.

### Kultur Etxea

■ **Ahoz aho jaialdiko ipuin tailerra.** Asvineak antolatutako eta Tolosako Udalak babestutako jaialdiaren baitan, Ana Torrellasek eskainiko du tailerra, hilaren 6an eta 7an.

■ **Amarozko Merkatu Txikia.** Ur-

tero bezala Nicaraguako emakume zentro bati laguntzeko antolatu du Amarozko Auzo Elkarteak, eta hilaren 9tik 15era bitartean egingo da.

■ **Odol-ematea.** Odol emaleen hileroko odol ateratzea egingo da hilaren 16an.

■ **Tolosari buruzko historia apunteak.** Aulas Kutxak antolatutako hitzaldi zikloaren baitan, hilaren 5ean, 12an eta 26an izango dira saioak, 18:00etatik 19:00etara bitartean.

### Leidor aretoa

■ **Ahoz aho jaialdiko gala.** Asvineak antolatutako eta Tolosako Udalak babestuta, hilaren 13an izango da jaialdia, 20:00etatik aurrera.

■ **Pirritx, Porrotx eta Marimotots.** Galtzaundi Euskara Taldeak antolatuta, hilaren 14an, bi saio izango dira. Lehendabizikoa 16:30ean eta bigarrena, 18:30ean. Sarrerak dagoeneko salgai daude Kultur Etxean.

■ **'Eta zer?'**. Dar-dar taldeak antzezlari hau aurkeztuko du ikastetxeentzat, eskola orduetan. Hiru egunetan izango da Leidorren, hilaren 23an, 24an eta 25ean.

■ **'Tinko'.** Ikastetxei zuzenduta, eskola orduetan, euskarazko film hau eskainiko dute hilaren 26an.

■ **'Oteiza eta Alhondigako kultur zentrua. Bilboko hiriarantzako proiektu estetikoak'.** Iskandar Rementerik egindako dokumentala ikusteko aukeran izango da dohainik, hilaren 27an, 19:30ean.

■ **Bertso jazza.** Hilaren 28an, 22:00etan izando da emanaldia.

### Aranburu Jauregia

■ **Ihesa. 8 artista, 8 hausnarketa.** Medicus Mundi elkarteak antolatuta, hilaren 6tik 21era ikusgai izango da erakusketa. Bisitarien-tzako ordutegia honakoa da. Asteartetik ostiralera, 17:30etik 20:30era eta larunbatetan, 11:00etatik 13:00etara.

■ **Oteiza Tolosan.** Oteiza, bizirako proiektua erakusketa eta Oteiza To-

losan atal berezia ikusgai izango dira hilaren 6tik 29ra bitartean. Baita ikus-entzunezkoak ere. Bisitarien-tzako ordutegia honakoa da. Asteartetik ostiralera, 17:30etik 20:30era eta larunbatetan, 11:00etatik 13:00etara.

### Zinema

■ **Martxoak 5.** Etzi, Zine Forumak antolatuta, eta Emakumearen Nazioarteko egunaren harira, *Estrellas de la linea* filma izango da ikusgai 19:15ean eta 21:45ean.

■ **Martxoak 6.** Ostiraletan berriz, Emakumearen Nazioarteko egunaren ospakizuneko ekitaldien baitan, *Camino* filma eskainiko dute 22:30ean.

■ **Martxoak 7.** Hiru film ezberdin izango dira ikusgai egun honetan, denak ere emakumearekin lotuta. 17:00etan, *Txoriburuak* (euskaraz), 19:30ean, *Camino* eta 22:30ean, *Lo mejor de mi*.

■ **Martxoak 8.** Bi film izango dira ikusgai igandean. 17:00etan, hurrentzat, *Txoriburuak* (euskaraz) eta 19:30ean nahiz 22:00etan, *Whale Rider*.

■ **Martxoak 9.** Ikuslearen egunean, 20:30ean, *Lo mejor de mi* filma izango da ikusgai.

### Bomberenea

■ **Xixinkei eta Krilin.** Ostiral honetan, hilak 6, talde hauen kontzertua izango da 22:30etik aurrera.

■ **Udaberri dantza taldea.** Tolosako dantza taldearen emanaldia izango da hilaren 7an, 22:30ean.

■ **Los del gas eta Puro Chile.** Bi talde hauen entzuteko aukera izango da hilaren 13an, 22:30etik aurrera.

■ **Necro eta Bocio.** Hilaren 13an,

22:30ean hasiko da bi talde hauen emanaldia.

■ **Underidfectax eta Mukulu Ken.** Bi talde hauek kontzertua eskainiko dute hilaren 18an, 22:30ean hasita.

■ **Vendetta eta Stupenda Jones.** Hilaren 19an, 22:30ean hasiko da talde hauen kontzertua.

■ **Positiva eta Lords of bukkae.** Hilaren 27an Bonbereneako eszenatoki gainean izango dira bi talde hauek, 22:30etik aurrera.

■ **Unsain anaiaik and konpany.** Hil honetako Bonbereneako azken kontzertua beraien eskutik izango da. Hilaren 28an izango da emanaldia.

■ **Ahoz aho jaialdia.** Asvineak antolatutako ekimenaren baitan, hilaren 12an, 22:30ean antzerki bat izango da ikusgai.

■ **Ahoz aho jaialdia.** Asvineak antolatutako ekimenaren baitan, hilaren 14an 11:00etan izango da emanaldietako bat.

### Besterik

■ **'Tanzania-Mozanbike' hitzaldia.** Fernando Odriozola izango da hizlari Aitzol Udal Euskaltegian, hilaren 5ean.

■ **Ipuin txokoa.** Errota Haur Liburutegian izango da hilaren 5ean, Miriam Mendozaren eskutik. 3-6 urte bitarteko haurrei eta euren gurasoei zuzendua dago ekimena.

■ **Oteiza Tolosan.** Mahai inguruak, erakusketa, bisita gidatuak, proiektioak eta dokumentala izango dira hilaren 6tik 29ra bitartean.

■ **Zuhaitzaren festa.** Amarotz auzoan ospatuko dute hilaren 8an. Azken bi urteetan jaio diren 32 haurren izenean zuhaitz bana landatuko da.

■ **XIV. Zuhaitz eguna.** Tolosako Ingurumen Zentruak antolatuta, haurrentzako jolas didaktikoak eta zuhaitz landaketak egingo dira hilaren 14an.

■ **Tuc de Mulleres eta Besiberri Sur mendietara irteera.** Oargi mendi elkarteak antolatuta, Aran bailarara joango dira hilaren 19tik 22ra.

■ **Euskararene.** Hilaren 24tik eta aurrerantzean 4ra jarduerak eta ekitaldiak izango dira hainbat gunetan.

■ **'Ataats, artea artearen gainean'.** Performancea GKO Galleryren eskutik izango da hilaren 28an, 11:00etatik 18:00etara bitartean.

■ **Abiba diskojaia.** Beotibar pilotalekuan izango da hilaren 28an.

■ **'Euskaldun eraldunaren metamorfosia' hitzaldia.** Xabi Paia izango da hizlari hilaren 30ean.

Batxilergoko ikasleei zuzenduta dago emanaldi hau.

■ **Gazteentzako ikastaroak.** Martxitik ekainera bitartean izango dira salsa-merenge, txalaparta, makillaje eta graffiti ikastaroak. Hauen prezioa 15 eurotako da eta izen-ematea Tolosako Gazte Informazio Bulegoan egin daiteke.

■ **Tolosa kantari.** Hilabetero bezala, Agirre doktorearen plazan (Tontokalen) elkartuko dira 12:00etan, kantuan aritzeko. Oraingoan, hilaren 28an izango da.

### Donostia aldeko banaketa enpresa batek ADMINISTRARI-KOMERTZIALA lanpostua bete behar du

Lanpostuaren funtzio nagusia, lan komertzialak egiteaz gain, banaketa koordinatzaileekin elkarlanean kanpainen banaketa antolatzea eta haien jarraipena egitea izango da.

#### Eskaintzen da:

- Urte amaiera arteko kontratua (luzatezko modukoa).
- Egun osoko lanaldia.

#### Eskatzen da:

- Administrazio eta merkataritza arloko ezagutza.
- Bulegotika programen ezagutza, erabiltzaile mailan.
- Izaera dinamikoa eta harreramanerarako erraztasuna.
- Antolaketarako gaitasuna.
- Gida baimena eta autoa izatea.
- Lan komertzialaren eskarmentua izatea baloratuko da.

Curriculum vitae zehatza bidali martxoaren 10a baino lehen: [gizabaliabideak@jarduna.net](mailto:gizabaliabideak@jarduna.net) helbide elektronikora edo Jarduna SM (Giza Baliabideak Saila) Martin Ugaldel Kultur Parkean, 20140 Andoain helbidera

Ez ahaztu erreferentzia zehatzea ADMINISTRARI-KOMERTZIALA (Erreferentzia: 09-ET-KOM)

### Irurako Udala

#### IRAGARKIA

Udal honek, pertsona bat kontratatu behar du kultura laguntzaile lanetarako. Bere zereginak izango dira, goizetan kultura eta arrialdetan agenda 21eko udal espedienteak kudeatzea eta gazteleku dinamizatzea.

Kontratuak iraugo du oraingo kultura laguntzailearen amatsun baimena bukatu arte eta sartuko da indarrean martxoaren erdialdera.

Lanpostu honetara aurkezteko beharrezkoak:

- Euskaraz jakitea (EGA edo balaiakidieren bat).
- LH1 edo babilegoa.

Gainera, hautaketan, baloratuko da haur eta gazteen hezkuntza eta aisialdian eta agenda 21 arloan titulazioa edo/eta eskarmentua izatea.

Interesatuak kurrikuluma aurkeztu dezakete udalteeleko bulego orokorrean, martxoaren 2tik 10 arte (biak barne)

Iurana, 2009ko martxoaren 2an. ALKATEA

## Emaitza onak lortu dituzte eskualdeko mahai tenis taldeek

**Mahai tenisa** » Bai Usabal MT-Tolosak bai eta Olaederra TM taldeak norgehiagokak irabazi zituzten.

### ERREDAKZIOA

Eskualdeko mahai tenis taldeek emaitza oso onak lortu dituzte asteburuan. Bi liga desberdinetan, gainera, Euskal Ligan eta Bigarren Nazional mailan.

Larunbat arratsaldean, Usabal kiroldegian bigarren mailako Usabal MT-Tolosak jokatu zuen partida Lasarteko Krafft Atleticoren aurka. Iker Muguerza, Emiliano Anton eta Jota Urquizuk osatzen dute etxeko taldea, eta garaipen garrantzitsua eskuratu zuten, 4-1eko emaitzarekin. Lasartearrek euren jokalaritu nagusirik gabe jokatu zutela aipatu behar da.

Iker Muguerzak ekin zion Iñaki Garciaen aurka. Biek ere joko oso ona erakutsi zuten, baina Iker izan zen puntua eskuratu zuena. Set bat eman zuen aurkariak, baina, azke-

nean, gainerako hirurak ere berak eman zituen. Jota Urquizuk galdu egin zuen Dani Egaña veteranoaren aurka. Hori izan zen aurkariak batu ahal izan zuten puntu bakarra, izan ere, Emiliano Anton jokatu zuen ondoren, erraz gaindituz bere aurkaria. Binaka ere, Iker Muguerzarekin bikotea eginez, irabazi egin zuten Lasarteko bikotearen aurka. Azkenean, 3-1 izan zen azken emaitza.

Laugarren eta azken puntua ere Iker Muguerzak eskuratu zuen. Kasu honetan aurkariari ez zion aukerarik eman, eta 3-0ekoarekin gailendu zen. Beraz, garaipen argia lortu zuten tolosarrek larunbatean, Lasarteko taldearen aurka.

Azken emaitza honekin, bosgarren postuan sailkatu dira sailkapen orokorrean. Hala, seigarren postuan sailkatu 4 puntura dute orain, eta alde bera dute laugarren sailkatuarekin. Hain zuzen ere, Lasarteko Krafft Atletico da laugarrena, larunbateko partidako euren aurkaria.

Datorren jardunaldiari dagokionez, seigarren sailkatuaren

aurka egin beharko dute tolosarrek, Aragoiko Schhol Zaragoza, hain zuzen. Usabal kiroldegia izango da norgehiagoka larunbat honetan, hilaren 7an, 16:30ean.

### Olaederra TMk ere garaipena

Bestalde, Euskal Ligako jardunaldiari dagokionez, Olaederra TMk azken postuan dagoen Etxadi Super BM taldearen aurka irabazi zuen 4-2ko emaitzarekin. Mikel Martin, Beñat Izaguirre eta Xabi Juantorena izan ziren jokatu zutenak. Bi jardunaldi baino falta ez direnean liga amaitzeko, taldea azken aurreko postuan dago, beraz, maila mantentzea dago jokoan. Baina, egia da, era berean, esperientzia jasotzen ari direla jokalarik gazteak, ondorengo erronketarako oso baliagarria izango zaielarik.

Kontuak kontu, hurrengo partida etxean jokatuko dute, eta Arabako Arauko Sansomendi taldea izango dute aurkari. Sailkapeneko liderrak dira une honetan. Partida Usabal kiroldegian izango da, eta bigarren mailako taldearekin batera hasiko da, hau da, 16:30ean.

## Berdinketa UPV eta Tolosaren artekoan

**Futbola** » Puntu bakarra batu dute, beraz, hirugarren postuan sailkatu dira tolosarrek; bi puntura dute liderra.

### ERREDAKZIOA

Preferente mailako lurraldekako partida interesgarria izan zen iragan asteburuan Tolosa eta UPV-iren artean ikusgai. Azkenean berdinketarekin amaitu zen, beraz, tolosarrek puntu bat baino ez ezin izan zuten batu. Ondorioz, hirugarren postuan aurkitzen dira sailkapenean.

Tolosak 22. minutuan sartu zuen gola Ugartemendiaren eskutik. Luizaroan irauan zuen markagailu horrek, eta ia partidaren amaierara arte ez zegoen ezer erabakita. Baina, 66. minutuan sartu zuen gola talde aurkariaren Jon Martin jokalaririk. Azkenean horrela amaitu zen, eta tolosarrek

ezin izan zuten sailkapenaren lehen postuarekin egin. Dena den, bi puntura aurkitzen da une honetan liderra den Aretxabaleta taldea, 43 punturekin. Bere atzetik, bigarren postuan, puntuetan berdinduta Hernani aurkitzen da. Beraz, lehen bi postua ez daude oso hurruntolosarrentzat. Talde asko daude, ordea, puntuetan nahiko parekatuak daudenak, eta lehenengo postuetara iristea helburu dutenak. Izan ere, Tolosa 42 punturekin dago hirugarren postuan, eta atzetik Trintxerpe eta Aloña Mendi daude 41ekin, eta 40 punturekin aurkitzen da Pasaia, eta 39 punturekin Hondarribia.

### Hurrengo partida etxean

Hurrengo partidari dagokionez, etxean jokatuko dute tolosarrek. Kasu honetan, Real Union B taldea hartuko dute aurkari bezala. Sailkapeneko erdiko postuetan daude hauek, 38 punturekin, zortzigarren postuan.

## Laskorainek 4-2 galdu du Urretxuren aurkako derbia

**Areto futbola** » Azken postuetan egon arren, maila hobea eman zuten aurkariak; hurrengo, Sasikoaren aurkakoa dute.

### ERREDAKZIOA

Azken bi partidetan garaile irten da, 30 punturekin aurkitzen zen Laskoraingo taldea, ez atzera ez aurrerako postuetan. Modu horretan joan ziren Urretxuko kiroldegiko kantxara jokalaritolosarrek.

Etxekoek, beraz, asko zuten jokoan eta berehala nabarmendu zuten garaipenaren irrika harmailetako zalegoaren aurrean, aurkariak ez bezela, seriotasun osoz aurreratu baitzuten norgehiagokari epaileak txilibitua estreinako aldirio bezain pronto. Modu horretan eta bosgarren minutuan 1-0 aurre hartu zuen Goerri taldeak kontrerasako jokaldi batean. Tolosarrek oparitzeko prestazioarekin jardun zuten lehen zati osoan zehar baina Endika atezainak istiluzko emaitzabatekidin zuen 20. minutuaren amaieran.

Ordura arteko itxura «kezkagarria» izaten ari zen, eta bigarren erdian ikastalako kontzentrazioak beste maila bat hartu zuen. Amatriainek berehala egingo zuen

berdinketaren, hau da, 1-leko gatastrategiazko kornar bat sarera bultzatzearen ondorioz. Etxekoan ondorengo erantzunari Saldiasak eman zion berea 2-2ko emaitza goiaz markagailura.

### Azkenean, porrota

Ondorengo golaukerak bi ateetan gertatu ziren baina etxekoak izango ziren beste behingoz asmatuko zutenak eta 4-2ko markagailuarekin amaitu zen partida azkenean. Aitzakiarik merezi ez duen porrota sailkapeneko azken postuetan egonagatik, ikastalakoek baino maila hobea erakutsi zuen aurkari «serio eta borrokalaria» baten aurrean.

Datorren astean Sasikoa liderraren bisita jasoko dute horitxoek Usabalgo kiroldegian, bere lerroetan Nazional B mailako jokalaritonenak dituen taldea eta txapelketa irabazteko aukeratu nagusia «inongo ez bairrik gabe». Joan den larunbateko neurketaren «irudiarra» oraindik, hamaika abagune garbi oparitzeko prestazioarekin jardun zuten lehen zati osoan zehar baina Endika atezainak istiluzko emaitzabatekidin zuen 20. minutuaren amaieran.

Ordura arteko itxura «kezkagarria» izaten ari zen, eta bigarren erdian ikastalako kontzentrazioak beste maila bat hartu zuen. Amatriainek berehala egingo zuen



Pasa den larunbateko partidaren une bat. HITZA

## Laburrak

### Saskibalo teknifikazio jardunaldia, hilaren 15an

**TOLOSA** » Urtero bezala, datorren denboraldiari begira, TAKE saskibalo taldeak teknifikazio jardunaldiak antolatuta dituela adierazi du. Horietako jardunaldi bat datorren martxoaren 15ean izango da, 11:00etatik 12:30era, Usabal kiroldegiko beheko kantxan, hain zuzen ere.

### Oinarritzko hezkuntzari buruzko hitzaldia, bihar

**TOLOSA** » Bihar hitzaldia izango da Samanegi ikastetxean, 16:30ean. Oinarritzko hezkuntzaren kurrikuluma: konpetentziak, helburuak eta edukiak izango da hitzaldiaren gaia. Samanegi ikastetxean izango da hitzaldia, Haur Hezkuntzaren eraikinaren erabilera anitzeko gela.

### Argazkigintza digitalaren ikastaroa emango dute

**ZIZURKIL** » Argazkigintza digitalaren ikastaroa izango da Zizurkil martxoaren 26an hasita. Denera, 8 egunetan emango dute ikastaroa, 30 euro ordaindu beharko dira. Martxoaren 16a baino lehen eman beharko da izena, Aurrera Plazako Udal Bulegoetan (943 69 24 95).



## EAEko legebiltzarrerako hauteskudeen emaitzen zehaztapenak

**Politika** » Atzoko alean PPK Lizartzan 4 bozka lortu zituela argitaratu zen baina 13 lortu zituen.

### ERREDAKZIOA

Atzo Hirtzak ale berezia argitaratu zuen, igandeko Eusko Legebiltzarrerako Hauteskundeetan eskualdean izan ziren datuekin.

Hainbat zehaztapen egin behar dira. Hain zuzen ere, Lizartzan PPK 4 bozka lortu zituela argitaratu zen baina datu hau ez zen zuzena. Izan ere Alderdi Popularrak 13 bozka eskuratu zituen.

Azalean, berriz, EAEko emaitza orokorretan, EAJ ordezkari jarri zen eta datua ere okerra zen: 4.396.557 jaso zituela azaltzen zen baina benetako datua 396.557koa zen.

Atzokoa hausnarketarako eguna izan zen alderdian, balorazioak egiteko eta datuak aztertze-koa. Hirtzak gerturatu egin nahi izan zituen errakzio guztiak.

## Sexualitatea emakumearen ikuspegitik

**TOLOSALDEA** » Emakumearen Nazioarteko Egunaren harira, atzo ekin zieten ekitaldiei Villabonan. Hain zuzen, sexualitateaz aritu ziren Kultur Etxean. 20 lagun inguru bildu ziren -emakumeak guztiak- eta kafea hartuz gaia jorratu zuten sexologo baten gidaritzapean. Datoren egunotan ere izagno da ekitaldirak. Bihar Gurea zine aretoa 19:00etan hasita Maskulinitasun berriak eta berdintasuna hitzaldia izango da. Bukatu ondoren, bertaratuko direnentzat luntx moduko bat emango diete. Ostira-lean Gurean ere, Joserra Fachadoren Nosotras antzezlan ikusteko aukera izango da, 4 euroren truke (haurrek eta gaztetxoek bi). Larunbate-

an, hilaren 7an, 11:00etan Erreboteko plazan bateragarritasunari eta erantzunkidetasunari buruzko jardunaldia antolatu dute, «lanen bidezko banaketa baten alde», hain zuzen. Martxoaren 8an, Erreboteko plazan berriz ere eta 12:00etan elkarretaratzea eta trikipoteoa izango da. Bazkaria eta festa bermatu dituzte, 14:00etan izanda. Tolosari dagokionez, atzo, Gizonen Elkargunea plataformaren hitzaldia izan zen, eta gaur, *Austima* hitzaldi tailerra izango da Eider Iruetagoienarekin, 16:00etan. Martxoaren 5ean, antzerkia izango da Asvinenearen eskutik, eta martxoaren 10ean film laburrak izango dira. Guztiak Helduen Hezkuntzan. NL

## Aizkardiren 41. Mendi Martxan izena emateko epea zabaldu dute

**Mendizaletasuna** » Martxoaren 29an izango da; 8. Euskal Herriko Iraupen Luzeko Ibilaldien Zirkuitorako baliagarria da.

### ERREDAKZIOA

Aizkardi Mendi Elkarteak zabaldu du aurtengo Mendi Martxan parte hartzeko izen-ematea. Doakoa izango da izen-ematea eta <http://www.aizkardi.com> helbidera jo daiteke horretarako. Bertan eman beharreko datuak Federazio lizentzia zembakia, EHNA edo NAN, izena eta bi abizenak,

Ibilaldi luzea edo motza egingo den adierazi, federatuta den edo ez eta mendi elkartaren izena. Martxoaren 28ra arte dago horretarako epea.

Informazio gehiago nahi duenak 649 717 182 telefono zenbakian eskura dezake 20:00etatik 22:00tara, asteleheneetik ostirale- ra; edota [ibilaldia@aizkardi.com](mailto:ibilaldia@aizkardi.com) helbidera idatzita.

### Bi ibilbide aukeran

41. aldiz antolatu du Aizkardik Mendi Martxa hau eta ohi bezala bi ibilbide jarri dituzte aukeran, bata luzea eta bestea motza.

Lehenengoak 46 kilometro in-

guruko luzera izango du eta 10 orduko iraupena izango du, gutxi gorabehera. 2.500 metroko desnibela gainditu beharko dute parte-hartzaileek, eta goizeko 06:30ean abiatuko dira Villabonako elizaren ondoan dagoen plazatik. Ibilbidea hau 8. Euskal Herriko Iraupen Luzeko Ibilaldien Zirkuitorako baliagarria izango da.

Bigarrenak, berriz, 22 kilometroko luzera du eta ibilbide oso burutzeko 5 ordu inguru beharko direla aurreikusitako dute. Bertan desnibela txikiagoa izango da, 1.100 metrokoa, hain zuzen ere. Ibilbide hau aukeratzeko dutenentzat hitzordua 08:00etan izango da.

### Ordu aldaketarekin adi

Aizkarditik gogoratu dute gau horretan bertan ordu aldaketa dagoela eta, beraz, parte-hartzaileek hori kontuan izan beharko dutela. Irteerak ordutegi berriaren arabera izango dira; hau da, ordua aurreratuta egongo da (gau horretan 02:00etan 03:00ak izango direlako).

Iazko mendi martxan partaidetza oso altua izan zen, XIV Orduak zirela-eta jende asko animatu baitzen ibilaldi luzea egitera. Antolatzailerak badakite zaila izango dela kopuru horretara heltzea baina aurtenera partaidetza altua espero dute.

### » AIZKARDIREN 41. MENDI MARTXA

#### ■ Ibilbide luzea.

Villabona (61 metro) - Basopeta (300 metro) - Eskatzu (512 metro) - Andatza (560 metro) - Juanasoro (330 metro) - Oria-Lasarte (25 metro) - Gurutzeta (165 metro) - Santa Barbara (239 metro) - Hernani (45 metro) - Pardiola (160 metro) - Onddi (540 metro) - Manttala (600 metro) - Adarra (814 metro) - Eteneta (710 metro) - Lapurtxulo (590m) - Leizaran ibaia (70m) - Mandabieta (250m) - Villabona (61m).

#### ■ Ibilbide motza.

Villabona (61 metro) - Lepasoro (105m) - Eskatzu (512m) - Andatza (560m) - Juanasoro (330m) - Atxulondo (165m) - Erdoizta Basoa (370m) - Belkoain (489m) - Basopeta (300 m) - Villabona (61m).



Jantzi dotore, jantzi hitza.



Salmenta puntuak: Tolosako OSKI arropa dendan  
Leitzako TORREA tabernan eta HITZaren Tolosako eta Leitzako bulegoetan

zirak • elastikoak • jertseak • fularrak • buffak...

TOLOSALDEKO **hitza** info  
ETA LEITZALDEKO

# Elordi-Herrigintza pilota eskola, pilotan aritzeko eta txikiak biltzeko

**Ikaztegieta** » 20 urte daramatzate eskola ireki bezala funtzionatzen; memento honetan 20 mutil daude.

## NEREA URBIZU

Ikaztegieta azken urte hauetan hazi egin da; orain gazte eta ume asko dago, jende berri gehiago dago. Bada, batez ere, jende berri honek askotan ez daki zein eskaintza dauden herrian, esaterako, Ikaztegieta pilota eskola: Elordi-Herrigintza, hain zuzen.

Memento honetan, 20 haur eta gazte ari dira pilotan ikasten, baina ez da pilotan aritzea bakarrik, elkartzeko gunea ere baita pilota eskola. Gaur egun, Udaberri Txapelketan eta Nafarroako hainbat torneotan ari dira parte hartzen. Orain arte ere, Gipuzkoako Txapelketan hartu dute parte.

## Guztira lau mailatan banatuta

Bada, pilota eskola honetan eta borondatez arduratzen diren herritarrek Joxean Urretabizkaia eta Joxe Mari Garmendia dira. Astean



Elordi-Herrigintza pilota eskolako hainbat pilotari. Ezkerrean Urretabizkaia, eta eskuinean Garmendia. HITZA

bitan joaten dira pilotalekura eta herriko haurrak prestatzen dituzte, zazpi urte inguruko pilotari txikienetatik hasita, helduenera iritsi arte. Guztira, lau maila dituzte: alebinak txikiak, infantilak, juvenilak eta nagusiak. «Kadeteak adibidez ez ditugu, baina gustura hartuko genituzke», diote arduradunek.

Lana eskatzen duen elkarte da

pilota eskolarena ere, ikusten ez diren baina premiazkoak diren hainbat gauza egin behar baitira. Honen atzetan ere, Ikaztegieta Udala dago diruz laguntzen, hain zuzen ere. «Hauen laguntza gabe ezingo genuke aurrera eraman eskola».

Asteburutan orain, Udaberri Txapelketako partidak ere jokatzeko dira Ikaztegieta, eta hainba-

tetan, noski, herriko pilotariak ikusteko aukera dago.

Beraz, bertan parte hartu eta izena eman nahi duenak, arduradunek «gustura» hartatuko dute, edozein adin duela, baina ikasturtea hastearrekin batera (iraila) egin beharko du. «Haurrak motibatu egiten dira besteekin jolastu behar dutenean, eta harremana sortzeko aukera ematen du eskolak».

## «Herri txikietan oso zaila da pilota eskola bat aurrera eramatea; asko desagertu egin dira»

**JOXEAN URRETABIZKAIA** » Elordi-Herrigintza pilota eskolako delegatua

**Pilota** » Joxe Mari Garmendia eta Joxean Urretabizkaia Ikaztegieta pilota eskolaz arduratzen dira.

## N. URBIZU

Joxean Urretabizkaia ikaztegierra pilotari ohia da. Betidanik frontoiarekin kontaktuan egon da eta orain dela 20 urte Elordi-Herrigintza pilota eskolako delegatua da, borondatez, nahi duelako.

## Noiz hasi zineten, gutxi, gorabehera eskolarekin?

Joxe Mari Garmendia eta biok 1990ean edo, hasi ginen. Beti izan da pilota giroa herri honetan baina umeekin orduan hasi ginen. Hurrez gero, frontoia izanik, beti izan da pilota hemen, herri txiki guztietan bezala. Lehenago jendeak frontoian jolasten zuen, pasatzen, baina 1990etik aurrera edo, nolabaitko jarraipena ematen hasi ginen. Batez ere azken 10 urte hauetan. Hasiera hartan biztanle gutxiago zeuden, eta gaur egun haur gehiago dago. Memento honetan guztira 20 haur eta gazte daude.



N. URBIZU

## Zein da zuen helburua?

Herrian ume guztiak biltzeko gunea bat izatea: bestela, herri txikietan eskolatik atera ondoren bakoitza bere etxera joaten da. Pilotan aritzeko aitzakia horrekin, haurrak biltzeko gunea izatea ere. Maila guztietako umeak ditugu, eta maila duen horri aukera ematen diogu, edo beste bide batzuk irekitzen dizkiogu. Oso irekia da pilota eskola: neskek aukera berdina daukate, noski, baina memento

honetan ez dugu. Hala ere, izan ditugu. Aurrera begira, eskola haztea nahi dugu.

## Herri txikia izatearekin arazo gehiago dituzue?

Bai, adibidez, txapelketan jokatzeko garaian herri txikitik arazo hau dugu: nola mailaz maila banatu behar diren haurrak, oso zaila da. Adin bereko haurrak izan ditzakezu bikoteak osatzeko edo prestatzeko, baina beste askotan ez dago aukerarik. Horri begira,

Altzokoekin eta Alegiakoekin hasi gara lanean, elkarteko bide horretan. Hasi gara, gure artean zonalde bat osatu, aukera gehiago izateko, hain zuzen.

## Beraz, elkarrekin funtzionatu txapelketa garaian eta baita entrenamendu garaian ere?

Bai. Adibidez, bikoteak osatzeko garaian eta entrenatzeko garaian ere bai. Pilota eskola bezala herri bakoitzak berea izango du eta umeekin funtzionatuko du, baina txapelketatan jolasten hasten garen momentuan, euren beharra dugu, edo haiek gurea eta orduan harremanetan izango gara laguntza emateko. Astean egunen batean adin bereko haurrak elkartuko genituzke herriren batean eta hola egingo genuke lana. Horretan hasi gara pixkanaka, adibidez, Alegia-ko infantilak hona etortzen dira.

## Lana eskatuko du honek.

Bai. Herri txiki batean oso zaila da pilota eskola bat aurrera eramatea. Leku askotan desagertu dira horregatik. Memento batean igotzen zara pixka bat eta bat batean berriz jaisten zara, jarraipenik ez duela. Askok uzten dute, juxtu gabil-tza jendez... Zenbat eta multzo handiagoa, aukera gehiago dago.

## Manex Castro billabonatarrek inkomunikatuta jarraitzen du, ertzainen esku

**Villabona** » AAMk «gogor» salatu nahi izan du gaztearen inkomunikazio egoera eta baita Ertzaintzaren jarrera ere.

## ERREDAKZIOA

Manex Castro herenegun Villabonan atxilotu zuten gazteak inkomunikaturik jarraitzen du, Amnistiaren Aldeko Mugimendua eza-gutzerara eman duenez. Castro Villabonako taberna batean atxilotu zuten eta ordutik inkomunikatua dago Ertzaintzaren eskuetan. Familiari «ez diote bere egoeraren gaineko inolako informaziorik eman eta abokatuari ez diote berarekin egoten utzi». Ertzaintzak atzo goizean esan zien Castroren senideei inkomunikatuta dutela.

Ertzaintzak azken hiru urteetan «ez du gatazka politikoari loturiko atxilotatzen inor inkomunikatu. EAJk inkomunikazioaren aurka dagoela esan izan du urteotan, eta ertzaintzaren protokoloa gorapatu du, atxilotuen eskubideen defentsarako eredu garrantzatu joaz».

## AAMren salaketa

Amnistiaren Aldeko Mugimendutik «gogor» salatu nahi izan dute «une hauetan EAJren polizia eskal herritar bat atxilotua eta inkomunikatua duela». Inkomunikazioaren egonda, «torturazaleei inpunitate espazio agerikoa eskaintzen baitie atxilotuak nahi bezala tratatzeko».

«Gogora ekarri nahi dugu Ertzaintzak 200 tortura salaketa baino gehiago dituela bizkar gainean, inkomunikazioa aplikatuz buruturiko torturak», alegia. Gogoratu du ere Ertzaintzak «torturen bidez lortu izan dituela atxilotuen inkul-pazioak eta Entzutegi Nazionalean inkul-pazio hauek frogatzea ez erabili dituztela ondoren».

«Inkomunikazioaren eta torturaren aurkako borrokan benetako konpromisoak hartu beharrean», jarraitzen du AAMk, «berriz inkomunikazioa erabiltzeko erabaki politikoa hartu izanak erakusten digute Rubalcabaren errepresio estrategia EAJ zein paper jokatzeko ari den». Bukatzeko, torturarekin amaitzeko «inkomunikazioarekin amaitu beharra» aldarrikatzen du AAMk.

## Iragarki laburrak

### LANA

■ **Garbiketak.** Bigi garbitasunak. Alfonbrak, etxebizitzak, bulegoak eta abar garbitzeko prest. Deitu inongo konpromisorik gabe. Irene: 695 708 271 edo 638 944 604.



Herriko plaza txukuntzeko Espainiako Gobernuak emandako ia 108.000 euro erabiliko ditu Udalak. A. IMAZ

## Herriko plaza eta hilerria berrituko dituzte datozen bost hilabeteetan

**Lizartza** » Herriko berrikuntza lanak egiteko Espainiako Gobernuak emandako 107.963 euro erabiliko ditu Udalak.

### ERREDAKZIOA

Pixkanaka ari dira eskualdeko herrietako Udalak Espainiako Gobernuak krisiari aurre egiteko aurkezitutako *Zapatero* Planaren dirua nola inbertituko duten argitzen. Horretan azkena Lizartzako Udala izan da. Orain gutxi Udalean izandako Osoko Bilkuran onartutakoaren arabera, herriko plaza eta hilerria hobetuko dituzte Espainiako Gobernuak emandako 107.963 euroekin.

Zehazki, Osoko Bilkuran herriko plazaren ondoko kalea oinez-

koentzat jarriko dute, ondoan dagoen muinoa txukunduko dute eta plazako umeen jolasak ere berrituko dituzte, besteren artean.

Hilerrian, aldiz, sorgailua jarriko dute argiztapena hobetu ahal izateko eta bertaratzea erretzu aldera zoladura ere berrituko dute.

Esan bezala Espainiako Gobernuak Lizartzarentzat aurreikusitako 107.963 euroak erabiliko dituzte aipatu berrikuntzak egiteko eta obrak datozen bost hilabeteetan egin beharko dituzte.

### Beste herriak

Lizartza, noski, ez da *Zapatero* Plana bezala ezagutzen den diru-laguntzak herrian berrikuntzak egingo erabiliko dituen udal bakarra.

Azkena Elduain izan da; herri honi 40.176 euro dagozkie eta hilerria berritzera bideratuko dituzte,

horma-hilobiak eta gorpuzkinentzako kutxa berriak egingo dituztelarik. Gaztelun, bere aldetik, 30.088 euro jasoko dituzte herrian berrikuntza ugari egiteko.

Belauntzan 54.200 euro jasoko dituzte eta diru horrekin herriguetik goiko baserrietara eta etxetara joateko bidea egingo dute.

Berrobiri, aldiz, 103.892 euro dagozkie eta honakoan ere oinezkoentzako bidea egingo dute Antziazpikoatik Telleri-zaharreraino.

Ibarrak kasuan, non diru kopurua handiagoa den biztanle kopurua ere altuagoa delako —biztanleko 178 euro ematen ditu Espainiako Gobernuak—, 756.271 euro jasoko dituzte eta hauek Julian Gayarre auzora bideratuko dituzte. Izan ere, azken urteetan atzekaldean gelditzen den auzo honetan ez dira ia berritze lanak egin eta nahiko maldatsua da gainera. Hortaz, auzoaren urbanizazioa hobetuko dute, sarbideak berrituz, barandak jarriz... eta Izaskunekin datorren ura jasotzeko azpiegitura ere berrituko dute. Era berean, argiztapena hobetuko dute.

Leaburun jasoko dituzten 67.963 euroak ur zikinak eta euri urak jasotzeko azpiegitura berrituko dute.

Bukatuko Oregari dagozkion 20.354 euroak Udalarena den antzinako etxe bat berritzeko erabiliko dituzte, ondoren etxe honetan zerbitzu desberdinak eskaini ahal izateko.

## Hasi dute jada Mugikortasun Plan Iraunkorra

**Ibarra** » Planaren lehen fasea atzo hasi zen datu bilketarekin; behaketa zuzena eta inkestak egin zituzten.

### ERREDAKZIOA

Atzo hasi zuten herrian Mugikortasun Plan iraunkorra lantzeko azterketa. Zehazki aholkularitza datu bilketa egin zuten eta horretarako behaketa zuzena eta inkestak egin zituzten egunean zehar Ibarra.

Planaren bigarren fasean, diagnostikotik ateratako ondorioetatik abiatuz, ekintza batzuk proposatu dituzte udalerriko mugikortasuna aldatu eta iraunkorreragoa bihurtzeko.

Ekintza proposamenak egiaztatu ondoren, Ekintza Plan bat gauzatu dute, gainera, ekintzak epe labur, ertain eta luzera definitu ahal izateko.

Era berean, Mugikortasun Plana lantzen den bitartean, bai diagnostiko fasean bai ekintzak proposatzeko garaian ere, herritarren parte-hartzea ezinbestekoa izango da eta, beraz, euren ekarpenak jasoko dituztela ere esan dute. Hori dela eta, Ibarrako Udalak,

Mugikortasun Plan hau gauzatu ahal izateko laguntza eskatzen die herritarrei, ahal duten neurrian egin ditzaketen ekarpenak proposatu eta guztien artean mugikortasun arazoari irtenbidea emateko.

Finantzaketari dagokionez, Mugikortasun Plan Iraunkorra lantzeko azterketaren guztizko kostua 33.000 eurokoa da (BEZ barne) eta Gipuzkoako Foru Aldundiak 12.931,03 euro jarriko ditu eta EEEK (Energia Euskal Erakundeak), aldiz, 17.068,97 euro.

### Plana zergatik?

Ibarrako Udalak esan duenez, herrian dagoen mugikortasun arazorik nagusiena auto pribatuen gehiegizko erabilpena da, izan ere desplazamendu gehienak garraio mota hau erabiliz egiten dira udalerrian. Honak aparkaleku arazok ere sortzen ditu, batez ere, Tolosako TAO tasak ekiditeko, Ibarrako sarreran auto asko uzten dituzte eta.

Araoz guzti hauei irtenbidea emateko eta garraio mota iraunkorrenak (oinetza, bizikleta eta garraio publikoa) priorizatzen lagunduko dute, hau justu, mugikortasun eskema hau, baita auto pribatuaren erabilera arrazionala bultzatzeko ere.



Autoen arazoa dela-eta isun sinbolikoak jartzeko ekimena ere egin dute. I.GARCIA

## Laburrak

### Txapin Festa antolatzeke bilera gaur, Kultur Etxean

**TOLOSA** » Tolosako gazte talde bat Txapin Festa antolatzen ari da pasa den urtean jaiek jasotako erantzun ona ikusita. Festa maiatzean izango da, eta «Txapin Festa guztion artean antolatu ahal izateko» herriko gazteei gaur 19:30ean kultur etxean izango den bilerara agertzeko deia luzatzen dute. Bileraz gazteen ekarpenak jaso eta festa antolatzeke izango da, hortaz.

### Ohiko Osoko Bilkura egingo dute bihar

**VILLABONA** » Villabonako Udalak jakitera eman duenez, ohiko Osoko Bilkura egingo dute bihar asteazkenean 20:00etan aurrera. Besteren artean, bilkuran *Larrea auzoan lurpeko aparkalekua* proiektu tekniko onartzeko proposamena eta obra hauen gantua, baldintza administratibo berezian agiria eta presazko prozedura irekitzea izango dituzte hizpide.



**EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

# BertsolarHITZA: Ibarra vs. Alegia

**Bertsolaritza** » Helduen bertso eskolen arteko txapelketa ostiralean jarriko da martxan, Ibarra eta Gaztetxean ospatuko den bertso-afariarekin.

## ASIER IMAZ

Tolosaldeko eta Leitzaldeko BertsolarHITZA Desafioa ostiralean, hilaren 6an, jarriko dute martxan Ibarra eta Alegiak.

Bi herrietako bertso eskoletako kideak Ibarra eta Gaztetxean elkartuko dira 21:00etan. Bertan afaldu ondoren, txapelketari ekingo diote. Bertso-afarira joan nahi duenak, Ibarra eta hiru tabernetan aur-

kituko ditu sarrerak salgai 15 euroren truke: Zubiaurren, Atarin eta Danon Txokoan.

## Hiru saio eta ondoren finala

Galtzaile eta irabazle hitzak ezagutzen ez dituen txapelketaren lehen saioa Ibarra jokatuko da ostiralean. Ondoren, Pototxox bertso eskolakoak herriatik Altzora joango dira, Elordi Elkartearen altxotarren

aurka aritzeko. Bigarren saio eta bertso-afari hau hilaren 13an, ostiralean, jokatuko da. Kanporaketekin amaitzeko, Alegia eta Altxok martxoaren 27an neurtuko dituzte indarrak, Alegian.

Saio bakoitzean bost epaile egongo dira ikusleen artean. Hauek nortzuk izango diren afarian bertan erabakiko dute. Epaileek orri txuri bana edukiko dute eta saioaren amaieran, herri baten izena idatzi beharko dute bertan. Bakoitzak ikusiko du kontuan zer hartu irabazlearen izena erabakitzeko orduan. Hiru saioaren amaieran hiru irabazle eta 15 bost-

ka egongo dira. Datu hauek kontuan hartuta, finalera bi talde onenak pasako dira.

Finala apirilaren 4ean, larunbatean, bertso-bazkari batean ospatuko da.

## Bertso eskolen topagunea

Abian jarriko den txapelketa herrikoia TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZA egunkariak eta Gipuzkoako Bertsozale Elkarteak antolatuko dute elkarlanean.

Helduen bertso eskolen arteko topagune bilakatu nahi duen desafioak lehen edizioa izango du aurtengoa. Gauzak ongi joaz gero,

hurrengo urtean Tolosaldeko eta Leitzaldeko bertso eskola gehiagoren parte-hartzea lotu nahi dute antolatzaileek. Hala nola Leitzza, Ikaztegieta, Berastegi...

## » SAIOAK

### BertsolarHITZA Desafioa

- **Martxoak 6, ostirala.** Ibarra eta Gaztetxean: Ibarra vs. Alegia.
- **Martxoak 13, ostirala.** Altxoko Elordi Elkartearen: Altxo vs. Ibarra.
- **Martxoak 27, ostirala.** Alegian: Alegia vs. Altxo.
- **Apirilak 4, larunbata.** Finala.



Ibarra eta Pototxox bertso eskolako kideak alegiarren aurka ariko dira ostiralean Ibarra eta Gaztetxean. Bertso-afariako txartelak salgai aurkitzen dira Ibarra eta hiru gunetan. HITZA

# Leitzako pilotarien asteburuko emaitzak

## A. IMAZ

Oinatz Bengoetxeak eta Ruben Belokik garaipena lortu zuten Donostiako Atano III.a pilotalekuan 22-11 Berasaluze VIII-Beginoren aurka. Eskuz Binakako Txapelketaren azken ligaxkakoa beste partidatan, Irujoeta Goñi III.ak irabazi zuten 22-17 Olaizola II-Mendizabal II.aren aurka.

Asteburu honetan leitzarrak Juan Martinez Irujo edukiko du



Larunbatean Nafar Jokoen jardunaldi berri bat jokatu zen Amazabalen. N. URBIZU

aurrean, Ligaxkako bigarren jardunaldian.

## Aurrerako pilotariak

Emakumea Pilotari Irekian Iera Agirrek eta Saioa Aristorenak 30-19 irabazi zuten euren partida.

Nafar Jokoen barnean, Leitzako pilotari gazteek partida ugari jokatu zituzten. Amazabal pilotalekuan ondorengoak jokatu ziren: Mitxaus-Saralegi bikoteak 17-18

galdu zuten. Aizagirre-Jaunarenak 22-7 irabazi zuten. Barriola-Zubiriak 18-2 eta Olano-Barberenak 18-15. Lezea-Zabalak 7-18 galdu zuten.

Zizurko Txapelketari dagokionez, Aurrerako Xabi Jaunarenaren partida ez zen jokatu. Julen Arozenak leitzarrak berriz 15-18 galdu zuten Murgiondoren aurka, kadeteen mailako lau t'erdiko partida.

## Hilberriak

### JOSEFA LIZARRIBAR JAUREGI

ANDREA

(Ramon Azpeitiaren alarguna)

Atzo hil zen, 94 urte zituela, Elizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkapena hartu ondoren.

-Goian bego-

Anai-arrebak: Frantziska (Jose Elorzaren alarguna), Joxe, Juanita (Joakin Lizarribar-en alarguna, Trini (Manuel Lizarribar-en alarguna), ilobak, lehengusak eta gainerako ahaideak.

Haren animaren alde otoituz bat eskatzen dizuete eta arren etor zaitzela GAUR ASTEARTEA, arratsaldeko SEIETAN, IURREAMENDIKO kaperan, egingo den hiletara. Aldez aurretik, mila esker.

Helbidea: Yurreamendi goitza (Tolosa). Ipintza-Berri baseria (Altxo) Oharra: Gorputz bella Tolosako Funeraria Vascongada Tanatorioan egongo da, gaur asteartea goizeko 10:45ak arte



TOLOSALDEKO  
2009ko  
martxoaren 3a

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

hilberriak  
urteurrenak  
eskertzak

HITZAK Gipuzkoan 120.000 irakurle

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu • tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info / Tel.: 943-65 56 95



9°  
6°

GOIZA	EURIA
ARRATS.	EURIA
BEROENA	8°
HOTZENA	3°

**Argitaratzailea:** Tolosa Herria Hedabideak S.L.  
**Lege Gordailua:** SS-0398-03  
**Zuzendaria:** Noelia Lataburu  
**Egoitza nagusia:** Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.  
**Telefona:** 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18  
**Leitza:** Herriko plaza, 1. 687 410 118  
**E-posta:** tolosaldean@tolosaldeko hitza.info.  
**Webgunea:** www.tolosaldeko hitza.info

**Zuzendariordea:** Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.  
**Publizitatea:** 661 678 818 tolosaldean\_public@tolosaldeko hitza.info.  
**Tolosa:** 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko hitza.info.  
**Villabona:** 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko hitza.info.  
**Anoetaledea:** 687 410 022. anoetaledea@tolosaldeko hitza.info.  
**Ibarralde:** 687 410 032. ibarralde@tolosaldeko hitza.info.  
**Alegialdea:** 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko hitza.info.  
**Leitza:** 687 410 118. leitza@tolosaldeko hitza.info.

**Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:**

**BERTAKO HEDABIDEAK**

eta Tolosaldeko eta Leitzaaldeko beste 77 eragile

**Hitza-k Bai Euskarari**

**'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak:** Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Armezeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Orexa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia

**Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua** (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

## A Agenda

### Deialdiak

■ **Alegia.** Emakumeen afaria izango da Txintxarri jatetxean, martxoaren 7an. Prezioa 15 eurokoa izango da. Alegiako Udalak afariaren erdia ordaintzen du (menua berez, 30 eurokoa da). Tikitak salgai martxoaren 4ra arte Kultur Etxean. Menua: entsalada epela, entrekota...

■ **Alkiza.** Martxoaren 7an, larunbatarekin, Emakumeen Eguneko afaria ospatuko da Ostatuan 21:00etan: zizka-mizkak, foie eta onddo hojaldrea, urdaiazpikoa, frijituak, zainzuriak, txipiroiak. Pello erara txuleta (bi pertsonentzat) eta gazta tarta (prezioa: 22 euro).

■ **Tolosa.** Udalaren Ohiko Osoko Bilkura egingo dute 19:30etik aurrera udal batzar aretoan.

### Ikastaroak

■ **Tolosa.** Haur bereziekin lan egiteko ipuin tailerra antolatuko dute *El cuento y la inclusión* izenburuan, Ana Torrellese emana, martxoaren 6an eta 7an. Izen-ematea, Kultur Etxean, 60 eurotan. Informazioa [asvinenea@gmail.com](mailto:asvinenea@gmail.com) edo 647 201401 telefono zenbakian.

### Hitzaaldiak

■ **Villabona.** Bihar Gurea zine aretoan 19:00etan hasita *Maskulinitasun berriak eta berdintasuna* hitzaaldia izango da eta ondoren, bertaratu direnzentzat luntx moduko bat emango diete.

### » GUARDIAKO FARMAZIAK

■ **Tolosa.** Santamaria, I. Nafarroa etorbidea, 2. 943 654610.

■ **Leitza.** Campos, M.Z. Elbarren, 52. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariaren adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.



## Eskualdekoak bikain Trindoor-ean

**TOLOSALDEA** ● Euskadi Irratiko *Hiru Errege Mahaian* larunbatero egin ohi duten Trindoor, estalpeko triatloiko saioaren baitan, pasa den asteburuan Garraitz KE eta Mahala-Tolosaldeko Triatloi taldeko triatloilariak aritu ziren. bi marka berri jarri zituzten, biak emakumezkoenak: bizikleta

saiorik azkarrena Itsaso Leunda hernaldetarraren (Garraitz) eskutik 5'23"rekin, eta ergometro saiorik azkarrena Myriam Elorzaren (Mahala-TTT) eskutik 2'44"rekin irudian. Bideabar esanda, biak izan ziren taldeko triatloiean parte hartu duten lehen emakumezkoak. HITZA

## A Agurrak

agurrak

urtebetetzeak  
urrezko ezteiak  
ezkontzak  
jaioberriak  
jaunartzeak...

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

- HITZAren egoitza Tolosan: Araba etorbidea, 5 behea
- HITZAren egoitza Leitza: Udaletxeko bulegoa

agurrak

## LIBURUA SALGAI

### Salmenta:

Liburuaren prezioa: 18 €  
Galtzaundi eta Tolosaldeko eta Leitzaaldeko Hitzako bazkideak: 14 €

### Eskaintza bereziak:

5 liburu 80€	10 liburu 140€
-----------------	-------------------

### Salmenta puntuak:

- Galtzaundi eta Tolosaldeko eta Leitzaaldeko Hitzako bulegoetan,
- Tolosako Aranburu, Babel eta Elkar liburutegietan.
- Ibarako Lurdes liburutegian.
- Villabonako Basajaun liburutegian.



1936KO GERRAKO OROITZAPENAK

TOLOSALDEAN ETA LEITZALDEAN

ARANZADI

galtzaundi

TOLOSALDEKO  
ETA LEITZALDEKO **hitza**